



EB uzteko prozedura

EBren Tratatuaren (EBT) 50. artikulua araberako, Estatu kideetako edozeinek erabaki ahal izango du, bere konstituzio arauarekin bat etorriz, Europar Batasuna uztea. Erresuma Batuan, Batasuna uzteari buruzko erabakia erreferendum bidez hartu zen, eta britainiar parlamentuak 2017-03-13an eman zuen baimena Lehen Ministroak prozesua aktibatzeko.

Theresa Mayk 2017-03-29an egin zuen EBren 50. artikuluan jasotzen den jakinarazpena, eta horrekin Batasuna uzteko baldintzei buruz akordiora heltzeko aurreikusita dagoen 2 urteko negoziazio aldia hasi zen.

Akordio hori gainerako 27 Estatu kideekin negoziatu behar da, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren (EBFT) 218.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Artikulu horretan oinarri hartuta, Batzordeak Gomendio bat aurkeztu zion Kontseiluari, eta honek erabaki bat hartu zuen, hots, negoziazioak hasteko baimena eman eta Batasunaren negoziatzailea edo negoziazio taldearen burua izendatzea.

Kontseilua eta bere prestatze organoak negoziazioak EBeko 27 E Estatu kideek emandako Orientazioen arabera egin daitezkeen arduratzen dira. Kontseiluak gidalerroak ere ematen dizkio Batzordeari.

Akordioaren zertzeladak Kontseiluak onartu beharko ditu Batasunaren izenean, 27 Estatu kideen %72ko gehiengo kualifikatuekin (gutxienez 20), biztanleriaren %65 ordezkatzen dutelarik eta Europako Parlamentuak onartuta (gehiengo soilez). Gainera, Erresuma Batuak berretsi beharko du.

2 urteak igarotzen badira eta akordiorik lortu ez bada, EBk eta Erresuma Batuak negoziazio aldia luzatzea erabaki ahal izango dute aho batez. Horrek esan nahi du, hasierako aldiak akordiorik egon ez bada eta Estatu kideren batek epea luzatzeari ezezkoa ematen badiu, Erresuma Batua automatikoki hirugarren herrialde bat izatera pasatuko litzatekeela.

Negoziatio aldiak, Erresuma Batuak EBren Tratatuak behartuta jarraituko du. Tratatuak aplikagarri izateari utziko diote Batasuna uzteko akordioa indarrean hasten denean edo, akordio hori lortzen ez bada, jakinarazpenetik 2 urte geroago, negoziatio aldiaren luzapena onartuz gero.

Akordio bi

Batasuna uzteko akordioaz gain (2 urtean lortu beharrekoa), beste akordio berezi bat egongo da, kide bien arteko etorkizuneko harremanen esparrua ezarriko duena, eta horren negoziatioak askoz denbora gehiago eska lezake.

Etorkizuneko esparruari buruzko akordioa Estatu kide guztiek eta Europako Parlamentuak onartu behar lukete.



- *Ze alderdi beteko ditu Batasuna uzteko akordioak?*

Batasuna uzteko akordioak EBko herritarrek Erresuma Batuan izango dituzten eskubideak eta EBn bizi diren britainiarrek izango dituztenak bezalako gaiak argituko ditu. Erresuma Batuak, Estatu kide izan denetik bereganatu dituen finantza konpromisoek ere akordio hori osatuko dute, bai eta mugari buruzko gaiak ere, bereziki Erresuma Batuen eta Irlandaren artekoak. Azkenik, EBren agentziekin zer gertatuko den erabaki beharko da, bai eta Erresuma Batuak Estatu kide izanik bereganatu zituen nazioarteko konpromisoekin zer gertatzen den ere, adibidez, klima aldaketari buruzko Parisko Hitzarmena.

- *Zer alderdi jasoko ditu akordioak etorkizuneko alde biko harremanei dagokienez?*

Zenbait arlotako lankidetzarako baldintzak ezarriko ditu, hala nola, defentsarako, terrorismoaren aurkako borrokarako, ingurumen, ikerketa eta hezkuntzarako. Funtsezko ataletako bat etorkizuneko merkataritzarako oinarria adostea izango da. Muga-zergak, produktuei buruzko arauak eta liskarretarako konponbideak zehaztu ditzake akordioak.